



Omar ASHTAWY | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

SOINEAN, JOLASA ETA BIZIA BAKARRIK

Gazako iparraldetik ihesi. Salah al-Din errepidea da ihes egiteko bidea, Gazako zerrenda iparraldetik hegoaldera lotzen baitu. Erdialdean dago Deir al-Balahren hiria eta jendetza bildu da bertan, toki seguruxea goa delakoan. Aspaldi da Gazan ez dagoela toki segururik. Deir al-Balahko errefuxiatuak pilatuta daude NBEk babesleku gisa berrerabilitako eskola-eraikinetan. 70 pertsona daude gela bakarrean, janari hondakinez inguratuta eta euliz josita. Komun bakarra 125 pertsonarentzat; dutxa bakarra 700 lagunentzat. Itsasoko ura gorputza, platerak, arropa garbitzeko. Eta besterik ez dagoenean, itsasoko ura edateko ere. Bari zela, sarna eta zorriak nonahi. Gosea eta gerraren usaina herritarren gorputzetan sartuta. Zapalkuntzaren arrastoak bistan, gerrako eszenatokia jolastoki bihurtu zaie haur palestinarrei. Hala ere, haurrak edonon pizten du jolasa, barruan daramalako. Goiko irudia aste honetan jaso da, Deir al-Balahren. Haur palestinarrek ez daramate besterik soinean, jolasa eta bizia. Amagoia MUJICA TELLERIA